



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko MARTXOAREN 27an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko martxoaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umeriz Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umeriz Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Ainara Sarasola Arsuaga
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2012ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2012 ekitaldirako udal aurrekontuaren espedientearen haserako onespena, hala bada.**
5. **Beste batzuk.**
6. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2012ko otsailaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

06/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari diru-laguntza eskaera egitea onesten duena, otsailaren 28ko 6/2012 Foru Dekretuaren babesean, non Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei aparteko laguntzak ematekoa 2011ko azaroaren 5ean eta 6an izan ziren aparteko euriteen ondoriozko kalteak arintzekoa, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- VAILLANT	121,03€
- TOLOSALDEA GARATZEN	236,00€
- TOLOSALDEKO GARAPEN IRAUNKORREKO UDAL ZERBITZUAK	10.417,38€
- PREFABRICADOS ITURRIA,S.A.	202,96€
- JUAN LUIS MENDIZABAL	1.581,22€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	751,39€
-EBA ERKIZIA BRION	126,17€
- IZADI LABORATEGIA	145,14€
-ENEKO ITURBE	2.286,60€
-TOLOSALDEA GARATZEN	5.460,00€
-IHOBE	300,00€
-VULCO	383,50€
-GAR-BI	270,81€
-JUANTXO GARMENDIA	1.104,48€
-ARGITU	133,52€
-GAS NATURAL FENOSA	623,16€
-REPSOL	1.507,85€
-REPSOL	550,02€
-URANGA	453,83€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **26.655,06** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA

2012 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012 urterako Udal Aurrekontuaren proiektua non 2012 urterako ekitaldi ekonomikoan Udalak izango dituen diru sarreraren eta gastuen partidak jasotzen diren.

Ikusirik aurrekontuaren dokumentuari erantzen zaion dokumentazioa, hau da memoria, pertsonalaren eranskina, aurrekontua betearazteko araua eta bestelakoak.

Ikusirik 2012ko martxoaren 22an Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak eginiko txostenean dioena.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2012 urterako Alkizako Udaleko Aurrekontuaren espedientea osatzen duen dokumentazioari, hau da, memoria, lanpostu zerrenda, Plantila Organikoa, aurrekontua betearazteko arau eta bere eranskinei hasierako onespena ematea.

BIGARRENA.- Aurrekontuaren espedientearen hasierako onspenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hamabost egunetako epean dokumentua jendaurrean ipini edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak zein iradokizunak burutu ditzan. Aipaturiko epean alegaziorik zein iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betirako onartuta geratuko da.

ERANSKINA

2012 ekitaldirako Udal Aurrekontu Orokorren laburpena kapituloka ondorengoa da:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

SARREREN EGOERA

1.- Zuzeneko zergak:	51.200,00
2.- Zeharkako zergak:	2.000,00
3.- Tasak eta bestelako sarrerak:	41.864,00
4.- Transferentzia arruntak:	265.253,00
5.- Ondarezko sarrerak:	4.610,00
6.- Inbertsio errealak inoreng.:	0,00
7.- Kapital transferentziak:	145.000,00
8.- Finantza aktiboak	0,00
9.- Finantza pasiboak	136.176,25
GUZTIRA:	646.103,25 €

GASTUEN EGOERA

1.- Pertsonal gastuak:	133.190,00
2.- Ondasun arrunten erosketak:	104.326,00
3.- Finantza Gastuak:	1.500,00
4.-Transferentzia arruntak:	86.792,51
6.- Inbertsio errealak:	280.115,71
7.-Kapital Trasferentziak	0,00
8.- Finantza aktiboak	0,00
9.- Finantza pasiboak	20.000,00
GUZTIRA:	625.924,22

BOSTGARRENGO PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

5 .1. GARAIKOETXE BASERRIAREN TERRENOETAN MAHASTI BAT LANDATZEKO, EGITEN ARI DIREN TXUKUNKETA LANETAN DAGOEN UR ETORRIA BIDERATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA

Ikusirik X.U.A. jaunak eginiko eskaera, hau da, Garaikoetxe baserriaren terrenotan mahasti bat landatzeko, egiten ari den txukunketa lanak direla eta bertan dagoen ur etorria bideratzeko obra baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak obrara bertaratzen dela eta ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

txostena luzatzen duela 2012ko martxoaren 23an:

“02-129b Lur eremuan mahasti ustiaketarako, lur mugimenduak egiteko obra baimen eskaera

2012ko martxoaren 15ean, X.U.A. jaunak, Alkizako nekazal lur eremu batean mahasti ustiaketarako lur-sailaren egokitzapena egiteko beharrezkoak diren lur mugimenduak egiteko obra baimen eskaera egiten zuen. Eskaerarekin batera G. del R., Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariak zigilaturiko krokis bat aurkezten du, bertan egin nahi diren obren zirriborroa adierazten duelarik.

Nekazal lur eremua Partzelazioaren arabera 02 poligonoko 129b partzelan kokatua dago batz bestea 3 Ha-ko azalera duelarik. Anoeta-Alkiza GI-3630 errepidean zehar, Sakamidra bailara ingurunean, erdi bideko bidegurutze batean herri bidea harturik, ibilgailuekin irisgarria den lur eremu bat delarik. Topografikoki irudian adierazten den bezala bailaren sakon gune bat osatzen du, partzelaren gaineko aldean kokaturiko mendi lerroetako ur isuri bilgune bat osatzen duelarik.

2012ko Martxoaren 15ean egin zen ikustatzean, ondorengo datuak hartu ziren.

Zehazturiko partzelaren beheko aldean herri bidetik sarbide bat du. Paraleloki bidearen ezkerretara estolda funtzioa betetzen duen lubaki bat dago, lur eremuko punturik baxuenean, bertara biltzen diren urak hormigoizko hodi batek jasotzen dituelarik. Gune honetan lur sailak ingurunean mendi lerroetatik biltzen dituen mendi urak bere osotasunean jasotzen direlarik.

Eskaeran adierazten denez, lur eremuaren ustiapena egiteko beharrezkoak diren lur mugimenduak egiteko baimen eskaera egiten da. Horretarako lur sailaren topografia aldatuko duen lanak proposatzen direlarik.

Era berean nekazal ustiapenaren egokitzapena egiteko, makinari eta lanabesen mugimendua bermatzeko, bi bide exekutatzeko proposamena egiten da. Bide hauek, bata lehendik aipaturiko lubakiaren eskumako aldean eta bestea lur sailaren punturik altueneko lur mugan, bailaren medi uren isurtze hidrografikoa aldatuko duelarik.

Eskaera aztertu ondoren, ondorengo irizpideak zehazten dira.

Lur sailaren gaur egungo mendi uren isurketa aldatzen den heinean, ur hauek desbideratzeko hainbat lan egin beharko dira.

Lehenik lur sailaren gorako aldean irekitzen den bidean bailarak jasotzen dituen



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

urak bildu beharko dira. Bidearen alboan mendira areka bat egin beharko da. Arekak bere muturrean arketa bat eduki beharko du jasoriko urak xurgatzeko gaitasuna edukiko duelarik. Arketa honetatik eta biderik motzenez 250mm-ko estolderi hodi bat ipiniko da, lur sailaren beheko aldean kokaturiko lubakira isuriko duelarik. Honela hormigoizko estolda orokorrera bideraturik geldituko delarik.

Bestalde, lur sailaren beheko muturrean gorako bidean kokaturiko artekak jasotzen ez dituen uren erretena egin beharko da. Egin beharreko artekak ere lubakira isuri beharko du, partzelak orotara jasotzen dituen urak desbideratuaz inondik inora gaur egungo herri bidera gain isurtzea galaraziaz. Horretarako erretanak behar adinako sakonera eta neurriak edukiko dituelarik.

Ikustatzean gaur egungo egina dagoen lubakia, eta ondorioz sare orokorreko hormigoizko hodiaren hartunea, sastrakaz eta lur metaketaz gailendurik dago. Ur isurketa egokia bermatzeko lubakiaren perfil hidrografikoa hobetu beharko da. Hau, lubakiaren alboko lerrokada harrizko eskoilera perfilatu baten bidez egin beharko delarik, hala nola, lur metaketak ekidituaz eta zoladuraren ibilbidea garbi utziaz hormigoizko hodiaren hartunera arte. Ibilbide guziaren mantenu egoki bat eta aldioroko garbiketa sakon bat eskatuko delarik.

Zehazturiko partzelatik igarotzen diren azpiegiturak desbideratu beharko dira. Partzela erditik gurutzatzen duen identifikaturiko ur hodia adibidez, desbideratu beharko da, hauen funtzionamendua bermatuaz.

Ondorioz, eta aurreko lerroetan azalduko baldintzak betetzen badira beharrezkoa den udal obra baimena emateko proposamena egiten da.

Hala nola, lur mugimenduak amaitu bezain laster, egindako lanen ikustatzea egin beharko delarik, bete beharreko baldintzak errespetatuak izan direla ziurtatzeko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.U.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Garaikoetxe baserriaren terrenoetan mahasti bat landatzeko, egiten ari diren txukunketa lanetan dagoen ur etorria bideratzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenez jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5.2. ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAEREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri eskolak aurkezturiko idatzia, non ondorengo dioen:

“Eskolako egoera:

- *Haur Hezkuntzako 4-5 urteko gelan (2.solairuan 2.gelan), pareta eta lurraren artean zuloa dago. Hau da, Lehen Hezkuntzako 1-2.mailako gelatik, lehen aipatutako gelara, klarionak azaltzen dira zulo horretatik. Ez dakit lehen aintzat hartua izan den edo gero eta zulo handiagoa dagoen.*
- *Haur Hezkuntzako 2-3 urteko gelan (1.solairuko gelan), lurrean pasata dagoen tubo mugitzen ari da. Leku batzuetan gorantz egin du eta beste leku batzuetan behera.*

Psikogela:

- *Goma espumazko jostailuen fundak margoz zikinduta geratu dira.*
- *Bestaldetik, mesedez eskatzen dugu, gela hori ibiltzen duenak hasieran aurkitu bezela utz dezan.”*

Gaia azterturik, batzarkideak Alkizako Herri eskolak egindako idatziaren berri jasotzen dute.

5.3. ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEARI 2012KO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Erniozaleak Kultur elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten zortzi herrien arteko ibilaldia 2012 urteko maiatzaren 13an egingo dela eta aurten Larrauldik abiatuko dela. Ibilaldia antolatzeko ibilbideak txukuntzea eta margotzea beharrezkoa egiten da. Horretarako Alkizako Udalarari 370,00-eurotako dirulaguntza eskaera egiten dute.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 370,00.-eurotako dirulaguntza onestea, 2012ko maiatzaren 13an egingo den ibilaldia antolatzeko .

BIGARRENA.-370,00.-eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

5.4.ERNIOKO GAINAN GURUTZEAK ETA OROIGARRI PARTIKULARRAK JARTZEKO GALERAZPENAREN ADIERAZPENA

Ondorengo adierazpena aurkezten da:

“ADIERAZPENA

Bildurik Ernio inguruan gauden 8 herrietako ordezkariak eta Erniozaleak kultur elkarteak mahai baten inguruan, denok arazo amankomun bat izanik, ondorengo hau

ADIERAZTEN DUGU

- Ernioko Gurutze inguruan gero eta gurutze edo oroigarri gehiago jartzen ari direla era partikularrean*
- Ernioko gaina bere osotasunean herri ondare bat dela naturak horrela eskatzen duelako, eta ezin dela pertsonalizatu inongo zatirik*
- Ernio mendiaren gaina denok gozatu behar dugu bere osotasunean, eta horregatik*

ERABAKITZEN DUGU

- Edozein oroigarri partikular jartzea galeraztea Ernioko lurren osotasunean.*
- Ernio inguruan gaur egunerarte jarri diren oroigarri eta gurutzeak, kentzeko gonbitea luzatu bere jabeei eta horrela egin dadila eskatu.*
- Mendizale edo Erniozale diren guztientzat baliogarria izango litzatekeen oroigarri orokor bat jartzea, norbere sentimenduak adierazteko.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aipaturiko adierazpena onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Albizturgo Udalari ematea.

5.5. ARAZTEGIKO ETXOLA EGITEKO BURNIEN EROSKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako araztegian etxola bat egin nahi dela. Horretarako burniak erosi egin behar dira.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Burniak erosteko bi aurrekontu eskatu dira, Hierros Labo eta Calcosa enpresei. Egokiena Hierros Labo enpresaren aurrekontua izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Hierros Labo enpresari Alkizako araztegiko etxola egiteko burniak erosteko esleipena egitea, guztira 392,87euro izanik.

5.6. UDAL PILOTALEKUAN KANALIOIA JARTZEKO KONTRATU ESLEIPENA

Ikusirik Udal pilotalekuan kanaloia bat jarri behar dela egindako itxituran, urak bideratzeko. Horretarako Fontaneria Antzietari aurrekontu bat eskatu zaiolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Fontaneria Antzietari udal pilotalekuan kanaloia jartzeko esleipena egitea, guztira 587,64 euro direlarik.

5.7. TXIRRINDUAK APARKATZEKO EUSKARRI BAT EROSTEKO ESLEIPENA

Ikusirik Alkizako Udalak beharra ikusten duela herriko plazan, txirrinduak aparkatzeko euskarri bat jartzea. Horretarako Perfyde enpresari aurrekontu bat eskatu zaiolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako plazan jartzeko Txirrinduak aparkatzeko euskarri bat erosteko PERFYDE enpresari dagokion esleipena egitea. Bere zenbatekoa 147,38 euro direlarik.

SEIGARRENGO PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondoren M.M.M. andreak aurkezturiko idatziaren berri ematen da, batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.10 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.